

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1985

877/2024 EBAZPENA, apirilaren 8koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez honako ebazpen honen huts-zuzenketa egiten den: 663/2024 Ebazpena, martxoaren 19koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez dei egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan Erizaintzako Zuzendariorde (Pertsonen eta lan-ingurune osasungarrien kudeaketa) lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari-gerentearen martxoaren 19ko 663/2024 Ebazpenaren bidez, onartu egin zen deialdia egitea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan Onkologia Plana, Medikuntza Nuklearra eta Erradioterapiako Erizaintzako Ondoko lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Akats bat antzeman da euskarazko bertsioaren izenburuan eta lehenengo paragrafoan, 2024ko apirilaren 5eko EHAA (67. zk.) argitaratutakoa. Beraz, honela zuzendu behar da:

Laburpenean, 2024/67 Laburpena (3/1) orrialdean, eta Ebazpenaren izenburuan, honakoa esaten den lekuan:

«663/2024 Ebazpena, martxoaren 19koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez dei egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan Erizaintzako Zuzendariorde (Pertsonen eta lan-ingurune osasungarrien kudeaketa) lanpostu bat izendapen askez betetzeko.»

Honako hau esan behar du:

«663/2024 Ebazpena, martxoaren 19koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan Onkologia Plana, Medikuntza Nuklearra eta Erradioterapiako Erizaintzako Ondoko lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.»

Lehenengo paragrafoan, 2024/1634 (3/1) orrialdean,

honakoa esaten den lekuan:

«Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Erizaintzako Zuzendariorde (Pertsonen eta lan-ingurune osasungarrien kudeaketa) lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera»

Honako hau esan behar du:

«Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Onkologia Plana, Medikuntza Nuklearra eta Erradioterapiako Erizaintzako Ondoko lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera»

Era berean, eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea irekiko da berriro, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsio bat jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2024ko apirilaren 8a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari-gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.